

“TAR”, “KO”, “ENEKO” IZEN-DEITURETAN

1976-V-28

J. L. Lizundia

Gure artean sarri gertatu da gauzatxu batzurengeatik izugarrizko eztabaida beroak sortzea, letra bat dela, neologismo bat dela, erabilkera bat dela, etab. Gauzak baretu direla uste dut, baina “tar” atizkia erabili edo ez erabili delata, euskaldunon artean iskanbilak izan dira. Sabindarrak alde guztietan zorioneko “tar” hori sartzen, beste batzuk horren ordez “ko” edo “eneko” jartzen. Inoiz entzun dugu nola Azkue euskaltzainburuak esan zuen: “Este Sabino que nos quiere convertir al País Vasco en una Tartaria”.

Hasteko “apellido” hitza esateko “deitura” erabiliko dut, eta ez “abizen”, neologismo honen premiarik ez baitzegoen, bestea izanik. Hala dakar Azkuek bere hiztegian: “Deithura (BN.Sal.L.S.), deitura (AN-b(baztan), apellido, nombre de familia, appellation, nom de famille”.

Beste puntu bat. Txosten honek ez du holako tesis berri bat, dotore, sakon eta zehatz bat izan nahi, eskualde batetako errefleju bat baizik, zeren gerta daiteke bestalde, beste eskualde batetan berdin ez izatea, bereizketa berberak ez egitea, edo-ta bereizketa horik ez ezagutzea. Atlas Linguistiko ganorazko eta zehatz bat ez dugun bitartean, erdi ilunetan ibiliko gara, literaturetatik kanpoko mila fenomeno eta aberastasun ezagutu gabe.

Sabino de Arana-Goiri-ren “Obras Completas” irakurtzen ari naiz eta denari, liburu osoari, gainbegiratu bat batzutan, azterketa sakon bat beste batzutan egin arren ez dut aurkitu bere “Arana-Goiri’tar Sabin” erabilkeraren arrazoinketarik. 782. horrialdian “Tratado Etimológico de los apellidos euskéricos” kapituluan “ko” atzizkiari buruz hau dio: “El sufijo *ko*, según veremos en la Segunda Parte, indica localización, actual o habitual, en el tiempo o en el espacio. (1) “Eta horri oineko oharrak: “Fácilmente se comprenderá que, considerado *ko* como sufijo de procedencia, no podría engendrar apellidos ambiguos de locales y personales, pues que los lugares no son capaces de proceder”.

Nik uste, eta uste bat besterik ez dela, hemen oinharritzen zela, eta ene ustez oinharri jatorra, "ko" horren kontra joateko. Kontutan har Sabinoren garaian hirugarren karlistada ondoren, "fuerismo romántico" azken boladan euskaldunek "ko" atzizkia erabiltzen zutela maizetan. Lehenago ere bai, noski, baina erdarazko "de"ren parean: Pedro *de* Astarbe, Pablo *de* Gorosabel,... Fenomeno horren barnean eta atzetik, euskal noblezitasuna, eta euskal deituren lokatibotasuna zeuden. Kasu bat, beste askoren artean aipatzekotan, 1886. urtean, Durangon egin ziren "Fiestas Euskaras" haietako diplometan agertuko nuke: "Euren Aurrena: Pedro Ampuero-koa.- Sekretariua: Pedro Astarbe-koa".

Deitura, famili-izena zenetik Aranak ez zuen "ko" onhartu nahiko, "gens" zentzu gehiagokoa "tar" izanik, "de" hori jatorrago itzultzen zuelakoan. Pundu honetan uste dut zuzen ibili zela, ez ordea, bere jeneralizazioan.

Gure inguruko adibide batzu

Oiz mendi zabalaren inguruko herrietan, bai Durangaldean, bai Markinaldean, "tar" "ko" eta "eneko" ongi bereizten dira. Markinaldea diogunean, bai gaur Bizkaiko Markinaldean, beraz Artibai hibai arrokoan, eta bai Gipuzkoako Markinaldean, Deba arrokoan gabiltza.

Nahiz eta ni abadiñarra izan, eta gure herrian ongi bereiztu, nola ibarreko herri bat den, bide nagusi eta industri, nahiko nahastua, Oiz mendiaren hegalean dagoen herrixka baten aipamena egingo dut, nere emaztearen herria, Garai. Bertan Goiherri hauzuneko agure zahar batekin egin ditut frogak, Gregorio Miota, 78 urtekoa, mutil zaharra, ia erdararik tutik ere ez dakiena, eta herritik oso gutxi aterea, gaztarroan albo herrietako erromerietara ez bada. Hiru exenplu nabarmendu dizkiot, Garain hiru etxe daude deitura oraindik jatorriz etxearenaz bat datozenak, bi Goiherri hauzoan bertan: Duñabeitia eta Larrinaga (Larriña) eta beste bat Aiartza hauzoan: Guena edo Aiartzaguena baserria.

—Duñabeititarrak oso dantzari famatuak izan dira beti.

—Baiña Juan ez dot entzun dantzaria izan danik.

—Zein, Juan Duñabeiti, hau azkenengoa da pepelo samarra, ez hau ez da izan ez dantzari ez ezer.

—Nor izan da gaur goizean ganauekin sarataka ibili dana?

—Juan Duñabeitiko. Horrek etxien ez dau sarata asko atarako baina bai soluen.

.....

—Zu, Gregorio, Larriñakuek Larrinaga daukie apellidue, baiña etxaun zaharrak ez euken holan.

—Ez lehen Urien-Larrinaga, ze bere ama zan etxanderie (Bizkaiko foruan maiorazgo sistema ez da zertan jarraitu, berdin geldi daiteke semerik zaharrena, naiz erdikoa etxeko-jaun, ene aitita semerik gaztena zen, eta emakumea ere bai) eta aita Uriendarra zan, Peru Urien, gero etxeko izenaz gelditu dira barriro. Gaurko Larriñakuek, batzuk Larriñarrauek dira, fiñek, baiña Uriendarrauren bat be urtengo dau, jokularien bat. Peru Uriengo oso jokularia izan ei zan.

.....

—Aiartzaguenekuek be etxien gordetan dabe apellidue, horrek be etxauntza handikuek dira eh!

—Bai, Felipe Gueneko gizon biergiñe izan da beti eta gastu gitxikue. Guen bietatik (bi etxe bai dira) keiek bakarrik urtetan dabela kanpora esan da beti, Guendarrak be aurrekulari onak izan dira, zeuk be ikusiko zendun Felipe Gueneko 70 urtegaz aurrekua ajil egiten.

—Guenekuek Aiartzaguena dauke apellidue etxetik dato-rrena. Zuek abadiñarrok Aiartzaguena esaten dozue, ze beste Gueneko bat daukazue, Geredijaguenekue.

Garaiko Goiherri hauzokoen izenak eta deiturak, 1, Francisco Sagastasoloa: Patxi Tromoita edo Patxi Etxetxua, etxearen izena: Tromoita-Etxetxuaga; kasu honetan ez zaio Patxi Tromoitako deitzen, zeren etxe horretan jaioa ez baita, Arroitarra da beste hauzo batetako baserrian baizik. 2, Anjel Etxeita, Lapitte baserrikoa, Anjel Lapitte eta Anjel Lapitteko. 3, Juan Totorikaguena, Aldatza baserri-etxekoa (Juan Aldatz ez Aldatz, Juan Aldatzeko). 4, Markos Zabala, Askaiturrieta baserri-etxekoa; Markos Askaiturrieta, baina ez Markos Askaiturrietakoa, bertako semea ez baita, baserria, ezkondu zenean, erosi zuen. 5, Orueta, baserria hutsik dago, baina bertan Legorburutarrak bizi ziren Galdakao eta Abadiñora jaitsiak. 6, Larrinaga Matias, Larrinaga baserrikoa, Matias Larriña eta Matias Larriñako. 7, Juan Duñabeitia, Duñabeitia baserrikoa, Juan Duñabeiti, Juan Duñabeitiko. 8, Tiburzio

Urizar, Duña-iturria baserrikoa, Diburzio Duñe eta Diburzio Duñeko. 9, Pedro Maortua, Duña-urrusti baserrikoa; Periko Urrusti edo Periko Urrustiko. 10, Margarita Etxeita, Etxeita baserrikoa, Margarita Etxeiteko. 11, Gregorio Miota, Solabizkar baserrikoa, Gregorio Solabizkarko, eta albokoa, Julian Solabizkar, Julian Solabizkarko. 12, Julian Berriozabalgoitia, Urien baserrikoa; Julian Urien eta Julien Uriengo. 13, Sabin Atutxa, Urien-azpikoa baserrikoa, Sabin Uriengo, Sabin Azpiko. 14, Nikolas Alberdi, Etxeitabe baserrikoa, Nikolas Etxeitabe, Nikolas Etxeitabeko. Ez dira behin ere erratuko bai *tar*, bai *ko* edo izena hutsean erabilkeran. Erregularitate eta bereizketa zehatza egiten dute beti. "Tar", aspaldian kalera-tuak badira ere jatorri edo gens haretarikoak badira ongi konserbatzen da oroitzen naiz oraintsu Bitor Legorburu Galdakaoko alkatea hil zutenean, Gergorio Solabizkarkok nola esan zidan: —Oruetarra zan hori ez da? —Bai, aita Oruetakoa, —Bai, aitaz ez naz asko akordetan, baina osabia eta aitita hazelakoak ziren!

"eneko"ren kasua

"eneko" atzizkia oso gutxi erabiltzen da Garaian, baserri etxeak baitira ia denak. Baina Abadiñon, baserri toponimoak pixkat galduta edo kaletxeak ugariago diren lekuan, "eneko" atzizkia erabiltzen da gehiago. Esate batetarako Perulanda baserrikoak, gaur botata dago eta etxe berriak eginda, Lizundia dute deitura nik bezalaxe, baina ez gara kasta berekoak, egun behintzat. Heurak Motxoienekoak dira, Motxoiena izenez ezagutzen baitzen etxea, eta beraz Motxoitarrak, gu berriz, Lizundiatar Etxenausitarrak.

Interesgarria litzateke "ena" "enea" "nea" "ene" "eneko" atzizki horren frekuentzia euskal toki-izenetan. Nafarroan eta Iparraldean asko dira, baita Gipuzkoaren Ifar-Ekialdean, ordea gainerako Gipuzkoa eta Bizkai gehienez ez da asko ikusten, baina berriz Txori-herrin oso ugari agertzen da: Uribene, Lopene, Eredune, Alkatene, Alasone, etab.

Azento diakritikoaz

Azkenengo batzarrean, Imanol Laspiur lagunak Eibarko azento diakritikoaz mintzatu zen. Askotan, guk ere azentu hori berdin egiten dugu, nahiz eta eibartarren *ia* bukaerak eta gure *ie-k*, batzuetan guri azento diakritikoak faltarik egin ez.

Gaurkora etorrita, konturatu naiz bai baserri-izena deituratzat eta deigarritzat erabiltzen denean, bai famili-izena deituratzat erabiltzen direnean, eta biak bat direnean: Duñabeitia-Duñabeiti kasurako eta etxearen, baserri-etxearen izena, azentu diakritikoa desberdina dela.

Duña-beitije, baserriaren izena esateko; Dúñabéiti izen eta deitura esateko.

Antsúa, baserriaren izena esateko; Antsua, probalariaren izena esateko.

Munióz baserriaren izena; Múnióz bertako gizona.

Etxebarri Izurtzako baserri bat; Etxébarri bertako mutil-zaharra.

Lebaríjo etxearen izena (Abadiñon); Lébario, bertakoaren izena eta famili-izena biak batera. Askóndo Mañariko baserri bat, bertako semea Askondo.

Probalarien munduan ibili nintzanean konturatu nintzen nola Markinaldekoak, bai Deba Arro eta bai Artibai Arrokoak eta Durangaldeko probagizon gehienak apellidutik deitu beharrean, baserri etxearen izenaz ezagutzen zirela, eta ez hainbeste Txori-Herrikoak. Azentua diakritikoa agertuz beti: Ikeríja - Ikerija; Lekunberri - Lékunberri (Elgoibar-en, Azkarate bidean); Errekálde - Errekalde; Anittú - Anittu eta abar.

Ondorio gisara

Batzuk "tar" hori itsu itsuan hartu dute, eta Sabinori jarraituz, deituretan, eta deitura biez ene ustez okerrago dena erabiltzen dute, garai batetako moda bat gainditu gabe. Beste batzuk "tar" horrek duen zentzu jatorra, zentzu jentilizioa ez dute ikusten eta sustraitik arbuizatzen dute.

Ez bata eta ez bestea. Ez da zertan erabili "tar" hori deiturak izenpetzean eta egile izenetan, baina bai jatorria, linea adierazteko, eta hau argi ikusten da etxearen izena, deiturarena berbera denean, eta hasieran biak ziren bat beti.

Azentu kontuan ere, diakritiko bereizketa kontuan izango nuke, eta deituretan, hasieran azentuatuaz esan: Etxebarri, Askondo, Agirre, Ardantza, Ertzilla, t.a.

Gioia erabilkeran jendeak majo anka sarten du, eta gehiago oraindik Mujikaren "Apellidos Vascos" delakoan, deiturak nola elkartzen diren ere ez daki, zeren gauza bat da bi base-

rri, etxe bi, linaje bi nahi baduzue elkartzea: Urien eta Larri-
naga, Urien-Larrinaga; Momoitio eta Duñabeitia, Momoitio-
Duñabeitia; Agirre eta Etxanobe, Agirre-Etxanobe, gioiaz
elkarturik, baina gioiaren ondoren maiuskulaz, eta beste bat,
Sabino Aranak ere honela dakar, baina gero Sabinok berak,
Ugalde-bekoa eta Gabika-gojeazkoa, gioiaz dakartza, baina
bigarrena minuskulaz hasita, eta ongi bereizten du. Neronek
ere, eta lehenago egun baterarte ez nuen Sabinoren 863.
horrialde hori irakurrita, horrela bereizi ditut.

Mujikak Gametxo-Goikoetxea, Gametxo deitura eta Goi-
koetxea deituraren elkartzea dela esaten du lasai. Ez daki
dirudienez Gametxo hauzoan, Ibarrangeluan, (Ibarrola pinto-
reari baserria erre zioten hauzoa hain zuzen ere) dagoen
Goiko-Etxea dela, eta kasu horretan ez dela berak dioena.

Deitura luzeak gehienetan bizkaitarrak izaten dira, eta
gaur askok laburtu egin dituzte. Ez dakit laburtzea bidezkoa
den, baina laburtzen denean nondik laburtu behar den ere
jakin behar da, eta horretan egin dira zenbait astakeria. Ez
dakit nola arraio egin lezaken deiturei buruzko lan bat hauzo
eta baserri-etxeen poblamenduaren berri ez dakien batek.
Baina poblamendu kontu honek, berak eskatzen du txosten
bat, eta interesgarria da izen bereko herri edo herrixkak dire-
nean bereizkuntza nola egin jakitea.

“H”IKAKO ADITZ-JOKOETAN

1976-IX-24

A. Zatarain

Oihanarte'ren “Atsotitzak eta Neurtitzak” liburuan Alva-
rez jaunak aditz-jokoetako “h” letra jatorrizkotzat jotzen du,
eta ez agertzeari “fenomenu” esaten dio. Gertabide au argit-
zea da txosten onen asmoa.

Ona Alvarez'en itzak:

54—Auko zori gaitzari, eta onari aiduru (Egon hakio tinko
gaitzari, eta itxaron ona. “Auko” hori egon berboaren sint.